

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

IVAP

EBAZPENA, 2020ko abenduaren 16koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen behin-behineko emaitzen kontra aurkeztutako erreklamazioak ebatzi eta behin-behineko emaitza horiek behin betiko bihurtzen dituena.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak, 2020ko maiatzaren 25eko Ebazpenaz (EHAA, 2020/06/05; 109. zk.), hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako deia egin zuen.

Deialdi honetako ohiko azterketa gainditu zuten azterketarien behin-behineko zerrenda Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2020ko azaroaren 16ko Ebazpenaz (EHAA, 2020/11/23; 233. zk.) argitaratu zen.

Zerrenda honen kontra erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, aurkeztutakoak aztertu egin dira. Gauzak horrela,

EBATZI DUT:

1.- Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen behin-behineko emaitzen kontra jarri eta onartu diren azterketarien erreklamazioen emaitzen argitalpena agintzea helbide elektronikoa honetan: <https://ivap.euskadi.eus/2020-2-deialdia/z16-a3hedei/eu/>

2.- Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen behin-behineko emaitzen kontra aurkeztutako beste erreklamazio guztiak gaitzestea.

3.- 2020ko azaroaren 16ko Ebazpenaz argitaratutako behin-behineko emaitzak behin betiko bihurtzea.

4.- Ebazpen honetan xedatutakoaren kontra gora jotzeko errekurtsioa ezarri ahal izango da Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailburuaren aurrean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 16a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN